



# SARTZEKO ARAUDIA

## SADAR ESTADIOA

### SARTZEAN, IKUSLEEK JARRAITU BEHARREKO ARAUAK.

	<b>SADAR ESTADIOAK EZ DU KONTSIGNARIK.</b>
	<b>ESTADIORA SARTZEKO ERABILTZEN DIREN ABONAMENDUAK OSASUNA KA-RENAK DIRA ETA ARAUZ KANPO, IRUZUR EGINEZ EDO BAIMENIK GABE ERABILTZEAK HURA GALTZEA EKARRIKO DU.</b>
	<b>IKUSLEEK EUREN SARRERA EDO ABONAMENDUA GORDE BEHARKO DUTE ETA AUTORITATEEK ESKATZEAN ERAKUTSI (OSASUNA KA-KO LANGILEAK, SEGURTASUN ARDURADUNAK, POLIZIA...). ERAKUTSI EZEAN, ESTADIOTIK KALERATUA IZATEN AHALKO DA.</b>
	<b>KONTROL ZENTRUAK HALAKORIK ADIERAZI EZEAN, IKUSLEEK EZ DIETE ATEEN ARDURADUNEI SARREREN BARRA KODERIK MOZTEN UTZI BEHAR.</b>
 ≥500 ml/gr.	<b>203/2010 ERREGE DEKRETUAK JASOTZEN DUENEZ, DEBEKATURIK DAGO JANARI EDO EDARIRIK SARTZEA EUREN HONTZIA METAL, BEIRA, ZERAMIKA, EGUR EDO ANTZEKO MATERIALEZ EGINDA BADAGO ETA BOLUMENA/PISUA 500 MILILITRO/MILIGRAMO BAINO GEHIAGOKOA BADA. ERA BEREAN, DEBEKATURIK DAGO ALKOHOLDUN EDARIRIK EDOTA SUBSTANTZIA ESTUPEFAZIENTE, PSIKOTROPIKO, ESTIMULANTE EDO ANTZEKORIK SARTZEA EDOTA EUREN ERAGINAREN PEAN EGOTEA.</b>
	<b>203/2010 ED-K JASOTZEN DUENAREN ARABERA, DEBEKATURIK DAGO INOLAKO ARMA EDO ANTZEKOAK EDUKI EDOTA ERABILTZEA. ERA BEREAN, BENGALAK, PETARDOAK, LEHERGAIK EDOTA, OROKORREAN, PRODUKTU SUKOI, FUMIFERO EDO KORROSIBOAK ZEIN GAILU PIROTEKNIKOAK SARTU EDOTA EDUKITZEA.</b>
	<b>HALABER, DEBEKATURIK DAGO GRABATZEKO KAMERAK EDOTA MIKROFONO PROFESIONALAK SARTZEA, KLUBAREN BAIMENA EDUKI EZEAN.</b>
	<b>203/2010 ED-K 17. ARTIKULUAN JASOTZEN DUENEZ, IKUSLE BAKOITZAK BERE SARRERA EDUKI BEHARKO DU, NORBERARI ESLEITURIKOA BAITA. HORTAZ, ERABAT DEBEKATURIK DAGO ESTADIOAN <u>SARRERARIK GABEKO HAURRAK BESOETAN</u> SARTZEA. HORRELA SARTZEN SAIAITZEN DENARI EZ ZAIO UTZIKO.</b>
	<b>SARRERA EDO ABONAMENDUA DARAMATEN IKUSLEEK HORREN ATZEKO ALDEAN ADIERAZITAKO TOKIRA SARTZEKO BAIMENA IZANEN DUTE SOILIK, EZINEN DIRA BESTELAKO EREMUETARA SARTU.</b>
	<b>2816/1982 ED-REN 59. ART.-REN ARABERA, EZIN DA ESTADIORA SARTU BOLUMEN HANDIKO OBJEKTUEKIN, HAURRENDAKO KARROTXOEKIN EDOTA ESTADIOAREN HUSTUTZEA OZTOPA LEZAKETEN OBJEKTUEKIN.</b>
	<b>ATEAK PARTIDA HASI BAINO ORDU BAT LEHENAGO (GUTXI GORA BEHERAIREKIKO DIRELA JAKINARAZI NAHI DU OSASUNA KA-K.</b>
	<b>SEGURTASUN ARRAZOI BERBERENGATIK, SARRERA EDO ABONAMENDU BAKOITZAREKIN BEHIN BAKARRIK SARTZEN AHALKO DA ESTADIORA.</b>
	<b>MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN IKUSLEEK HAIENDAKO BEREZIKI PRESTATURIKO EREMUETARA SARTZEN AHALKO DIRA SOILIK (BERTARA SARTZEKO DAGOKION SARRERAREKIN) BETIERE ATE NAGUSITIK SARTUZ (0 ATEA). PARTIDA IKUSTEKO ESKUBIDEA EMATEN DUEN SARRERA EDUKITA ERE, EZ LITZAIEKE SARTZEN UTZIKO SARRERA HORI AIPATU EREMUETARAKO EZ BALITZ EDOTA EREMUOK BETERIK BALEUDE.</b>
<b>DEBEKATURIK DAGO INDARKERIA, ARRAZAKERIA, XENOFobia EDOTA INTOLERANTZIA BABESTEN DUTEN PANKARTA, BANDERA, IKUR EDOTA ANTZEKOEKIN ESTADIORA SARTZEA. IKUR HORIEK NAZIO ZEIN NAZIOARTEKO ESTAMENTUEN ALDETIK ZIGORRA EKARRIKO LUKETELAKO.</b>	
<b>AIPATU SINBOLOAK EDO ANTZEKOAK SARTU EDO/ETA ERAKUSTEA, EUSKARRIA EDOZEIN IZANIK ERE, BEREHALAKO ESPEDIENTE IREKITZEA EKARRIKO DU KLUBAREN DIZIPLINA BATZORDEAREN ALDETIK, INDARREAN DAUDEN BESTELAKO LEGEDIEK EZAR LEZAKEEN ZIGORRAZ GAIN.</b>	
<b>GORABEHERAK JAKINARAZTEKO LEHIATILAK: KLUBAREN BULEGOETAKO LEHIATILAK</b>	
	<b>BIDEOZ ZAINDUTAKO EREMUA</b> Datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoa. ZURE ESKUBIDEAK ERABILTZEKO HONENGANA JO: OSASUNA KLUB ATLETIKOA. Sadar Estadioa Sadar kalea z/g 31.006. Iruñea. (Nafarroa).